



“ZUK ZER DEZU, ARANTZAZU?”

Bein da barriz esan daikegu ori, ikusi doguna ikusita gero. Millaka batu dira gazteak “Euskalerriko altara nagusian”, Arantzazun, barriror be. Kristautasuna artutera igon eben. Bai, zer dauko Arantzazuk?

Amaika urte dirala, urtero urtero, agoztuko azkeneko domeka goizaldean millezka gazteak ikusten ditu Arantzazuk, gau ibillaldian etorritakoak danak. Gipuzkoako gaztediaren ibillaldia da izan, baiña, onez-kero, Euskalerra osokoa dala esan daikegu, Euskalerra danetik datoz etorri be-ta. Bizkaitik, esate baterako, neiko etorten dira, naiz-ta ez bear beste. Nik dakitanez, aurton Gernika aldetik, Bilbotik eta Bermiotik etorri dira. Frantzi aldetik be banaka batzuk etorri ziran, askotaz gitxiago.

Euskalerriko altara nagusian

Goizeko ordu bietarako eldiu ziran gazteak Arantzazuko eleizara. kantari. Gorputzak nekatuta, zama baiño biotza kantariago.

Nik, lentxoago, kamiñoan zear igoten ikusi nebazan gaiñe batetik. Bat, gazteri sutsu ori ikustean, Euskalerraren etorkizunean pentsetan asten zan, ia kargutu barik. Gazte bat ikusten dogunekoze, zergaitik pentsetan dogu beti geroan? Gaztea etorkizunari lotuta dagoalako, buruz baiño biotzez lotuago, askotan. Joanari baiño datorrenari lotugoa dagoala gaztea esan geinke. Orregaitik pentseko neban nik, segurutik, etorkizunean.

Bitartean, altabozak garraxika ziran: “Gazte mai-teok, kristiñau izan bear dozue. Apostolu izan bear dozue zeuon bizitzan. Orren eske daukozue Kristo”. (Etzarie akordetan, gazteok?)

Eta batek pentsetan eban, bere kolkorako:

“Oneek danak erantzungo balebe, zer, zer gertatuko ete litzake emen!”

Kristautasunak eta Euskalerriak beste arpegi bat artuko leukie.

Garbiagoa, gazteagoa. Indartsuagoa.

Geroko gizartea egingo daben gazteak Arantzazun ikusi nebazan, Amaren aurrean, otoitzean, kantari

GAZTERI BARRIA SUTAN

Bat... bi... eun... milla... zortzi milla... amar milla...

Ez dakit zenbat. Beste urteetan lez, ortxe-ortxe, gitxi-gora-bera. Arantzazuk artu eban betekadea beintzat. Eleiza topetaraiño beteta egoan, koru, altara ta guzti; sarrerako eskeillarak be beterik, ta apurtxo bat geiago plazoletan. Igazko antzean. Amar milla inguru.

Organizaziñoa, dana joan zan ondo, beste urteetan baiño obeto.

Egualdia be gazteen alde egon zan aurton. Parrandan egiteko gau ona bazan, etzan txarragoa, taka taka, Arantzazura igoteko. Oñatitik Arantzazurako ibillaldia (9 kilometro) errez egin jakenla —esan eustan gazte batek—, altabozetatik esaten eutsena entzunaz batean.

Altabozetatik berba egiten jake gazteeri, eureri ardura detsen gaieri buruz. Beti be gai biziak eta sakonak eta interesgarriak emoten jakez, ulertzeko moduan birrinduta, gero eurek bizitzara eroan daiezan. Al dan neurrian, Kristautasuna bear dan moduan bizitzera erakusten jake, ta ez da gitxi.

Berbaldi oneek dirala-ta, beste gazte orrètariko bategaz jardun neban gero, ta esaten eustan onek:

—Bai, gizona, bai, geure birtuteak be agirian jarri dittuez, ta batez be onek, egia esateko. Gure justizi gura, gure deskonformismua gauza askorekin, politika ta gizarte egilleak izan bear dogula konturatutea-ta, ez dira birtuteak, ba?

—Zer eskertuko zeunskio geien ibillaldi oneri?

—Batez be nik eskerten dotana da Kristianismuak gaurko munduaren problemenezako erantzun egoki bat ba daukoa argi ta garbi erakutsi deuskuela izlariak, beste edozein ideolojiak baiño askotaz geiago, Marx'enak baiño geiago. Garbi ikusi dot nik ori. Niretzat, benetako Kristau izatea zer dan ortxe erakutsi deuskue. Ta onek poza ta kemena emoten deusku gazteeri, lengo izakera ta egitura askokaz konforme ez gagozalako.

Gazte au pozik egoan beintzat. Ta nigaz berbetan egon ziran beste danak be, bardin iñoen.

Atxarteondo.